

# 1. Hitzaurrea

## ***1.1. LEHMAN BROTHERSEKIN BATERA ERORTZEN HASI ZENA***

2008ko irailaren 15ean, duela bederatzirte luze jada, Lehman Brothers finantza-erraldoia erori zen. Ez zen, inondik ere, gertakari isolatua. Astebete lehenago, AEBko Altxorraren Departamentuak Fannie Mae eta Freddie Mac hipoteka-entitate garrantzitsuak *erreskatatu* behar izan zituen. Nazioarteko finantza-krisiaren hasiera horretan, agerian gelditzen hasi ziren merkatua arautzeko ardura eta gaitasuna omen duen *esku ikusezinaren* gabezia guztiak.

Aurrekoaren ondorioz, diskurtso ekonomiko liberal nagusiaren zenbait zutabe ere erortzen hasi ziren. Horren lekuko dira Gerardo Díaz Ferranek eginiko adierazpenak gertakari horiek eta egun gutxira. Garaian CEOEko burua zenak estatuaren «esku-hartzea» eskatu eta merkatu librean «parentesi» bat irekitzea proposatu zuen. Era berean, aipatutakoaz gain, «liberalismo gehiago» eta «pribatizazio gehiago» ere eskatu zituen (Díaz Ferrán, 2008). Kartzelatik pasatu den pertsonaia horri buruz pentsa dezakeguna albo batera utziz, aitortu behar zaio ondoren kolore ezberdinetako gobernuak ezarriko zituzten neurri ekonomikoak lehen unetik aurreikusi izana.

Edonola ere, Espainiako enpresarien buruak estatuaren «esku-hartzea» eta merkatu librearen «parentesia» eskatu izana mugarriztat jo daiteke eta, horregatik, kritika andana jaso zuen. Zentzu horretan, Espainiako presidente Rodríguez Zapaterok, Europar Batasuneko gai ekonomikoetarako komisario Joaquín Almunia eta enpresarien nahiz profesionalen elkarte ezberdinetako bozeramaileek, den-denek Díaz Ferrán kritikatu eta arduraz eta koherentziaz aritzeko eskatu zioten, alegia, merkatu librearen alde jardutea.

Liberalismo ekonomikoa izan da, azken urte luzeetan, zientzia ekonomikoaren paradigma nagusia, eta merkatu libre, haren oinarria. *Homo economicus* delakoan oinarrituta, pertsona bakoitzak interes propioa lehenetsi behar du bere jarduera ekonomikoan, eta, ondoren, merkatuak edo *esku ikusezinak* eskariaren eta eskaintzaren arteko bitartekaritza jorratuko du. Horrela, guztion mesederako den oreka bermatuko da, baita gizarte osoarentzat garapen ekonomiko oparoa ere. Halaber, *esku ikusezinak* lana ongi egingo duenez, liberalismo ekonomikoak estatuaren esku-hartzea arbuiatuko du.

Historian zehar beti horrela izan ez bada ere, azken hamarkadetan, aipatu berri ditugun oinarrizko ideia horiek jaun eta jabe izan dira zientzia ekonomikoaren

jardunean, baita eztabaida politiko eta ekonomikoan ere. Horregatik, Lehman Brothers erori, finantza-krisia mundu osoan zehar zabaldu, eta, enpresarien elkarteko buruak liberalismo ekonomikoaren oinarrietako bat —estatuaren esku-hartzerik eza— auzitan jarri zuenean, arduradun politiko zein ekonomiko ugari aztoratu zituen. Logikoa da oso.

Aitzitik, ez zen izan Díaz Ferrán estatuaren esku-hartzea eskatu zuen bakarra. Gerora, egiaztatu den bezala, zenbait gobernuk bankuak *erreskatatu* dituzte, finantza-sisteman eta automobilen industrian dirua *injektatu* dute, eta ekonomia *osatu* edo *sendatzen* laguntzeko *erreforma* ugari gauzatu dituzte. Aditu eta arduradun ugari neurri zehatzak proposatu dituzte eta, jarraian, herrialde ezberdinetako gobernuek, norabide berean, ekonomian esku hartu dute. Zein helburu eta ondoriorekin, ordea, aztertu beharreko gaia izango da.

Aurreko paragrafoan, azken urteotan sarri erabili diren kontzeptu eta metaforak nabarmendu ditugu. Izan ere, gure ustez, hitz horiek ez dira debalde aukeratu, eta, krisi honen harira, eraiki den diskurtsoaren osagai garrantzitsuak bilakatu dira.

Krisi honetan, liberalismo ekonomikoaren oinarri nagusietako bat auzitan jarri da, alegia, estatuak ekonomian esku-hartzerik ez duela izan behar dioena. Ondorioz, gobernuen parte-hartze zuzena sarri gertatu da. Edonola ere, kontzeptu eta metafora zehatzekin argudiatu den esku-hartzea izan da eta, frogatuko dugun bezala, George Lakoff-ek (2004) ikertutako markoen teoriaren logikari erantzuten diote.

Aditu ekonomikoek krisiaren harira darabilten diskurtsoari buruzko lan interesgarria argitaratua du Emmánuel Lizcanok (2012). Haren ustez, hau da estatuaren parte-hartzea zilegitzeko ezarri nahi izan den markoa: merkatu libreak funtzionatzen du, baina inoren ardua ez den *ezbehar natural* baten ondorioz —izan finantza-tsunami, *lurrikara* burtsan edota *krisia* bera— ekonomia *larriki gaixotu* da. Merkatuaren *ondoezak* justifikatzen du, beraz, gobernuen esku-hartzea, eta ez merkatuak bere kabuz arautzeko duen ezintasunak.

Oinarria, hortaz, ez da aldatu. Testuinguruaren araberako salbuespenezko neurri gisa aurkezten da, nahiz eta, bederatzi urte geroago berresten diguten ekonomiaren *errekuperazioan laguntzen* jarraitu behar dutela. Luze doa, beraz, merkatuaren *gaixotasuna*.

Herritarron dirua erabiliz aurrera eraman diren politikek eta neurriek, alegia, gobernuen esku-hartzeak ekonomia *sendatzea* du helburu. *Gaixorik* dagoena osatzea moralki zilegi denez, herritarron dirua xahutu da bankuak *erreskatatzeko*, enpresa handiei dirua *injektatzeko* edota herritarroi galdetu gabe, gobernuek eta konstituzioak egun batetik bestera aldatzeko. Horren lekukoa da, adibidez, Espainiako Estatuan buruturiko Konstituzioaren 135. artikuluen berehalako aldaketa. Urteetan euskaldunontzat, edo katalanentzat, aldaezina izan den konstituzioa, merkatuaren esanetara moldatu zen aste gutxiren bueltan.

## 1.2. HITZAK BAINO GEHIAGO

Lehenik eta behin, eskuetan duzun liburuak hori guztia egiteko erabili den diskurtsoa aztertzea du xede. Diskurtso ekonomikoa, noski, hitzez osatua dago, metaforez josia, eta horien arteko joskera eta erretorikari so egitea dugu helburu. Zehatz-mehatz, zientzia ekonomikoan nagusia den liberalismo ekonomikoaren diskurtsoan zehar bidaia historikoa egitea dugu jomuga, hastapenetatik gaur arte. Horren bilakaeran izan diren mugarrak eta egin diren egokitzapenak behatu eta ikertuko ditugu.

Diskurtsoa, ordea, ez da izango bere horretan helburu. Aspaldi, Greziako filosofoek ohartarazi ziguten erretorikaren garrantziaz, baina *bira linguistikoa*ren onarpenetik hona, bereziki, hizkuntzaren izaera performatiboa azpimarratu da. Horrek nabarmentzen du errealitate sozialean eragiteko eta hura eraldatzeko hizkuntzak eta diskurtsoek duten gaitasuna.

Ondorioz, eta gureari helduz, zientzia ekonomikoaren diskurtsoak eragiten dituen ondorio sozial, ekonomiko eta politikoak ere aztertzeari funtsezko deritzogu. Horretarako, erretorika eta metaforen azterketan lagunduko duten autoreen irakaspenekin batera, ezagutzaren soziologiaren ekarpenak ere kontuan hartu beharko dira. Zientzia ekonomikoa eta haren paradigma nagusia den liberalismo ekonomikoaren diskurtsoa, eraikuntza sozial gisa kokatu, eta gizartean betetzen duen funtzioan sakonduko dugu.

Bestelakoa balitz diskurtso ekonomikoa, nekez, onartuko lukete herritarrok azken urteotan egin dena eta egiten ari dena. Herritarron dirua amaierarik gabeko *finantza-zulo beltz batean xahutu* edo *aberastasun gehien zutenei oparituko* zitzaizela esan baligute, edota neurri ekonomiko guztien helburua *herritarroi lapurtu eta aberatsak are aberatsago egitea* zela iragarri izan balitz, bideratu diren hainbat neurri ez ziren onartuko. Ez bederen, neurri horiek hartu diren naturaltasunarekin. Ezbairik gabe, diskurtso ekonomikoak eragin handia izan du gertatutako guztia aipatu dugun markoaren edo ikusmoldearen barnean ulertzeko, eta horren arabera onartzeko eta justifikatzeko.

Ezagutzaren soziologiari esker, ezaguna da zientziaren eta ideologiaren artean dagoen harreman estua. Batetik, ideologiak proposatzen digun begiradak gure ezagutza, arrunta eta zientifikoa, baldintzatzen du une oro. Bestetik, zientzia bera garatzeko baliatzen ditugun kontzeptu eta metafora guztiek eragin handia dute, besteak beste, horietako asko ideologia zehatzekin hertsiki lotuta daudelako. Liberalismoaren eta *esku ikusezinaren* arteko harremana da horren adibide garbia.

Era berean, egungo gizartean, zientziaren edota ekonomiaren izenean hitz egiteak bereganatu duen *estatusa* eta ospea kontuan hartu beharra dago, zientziak berak —gure kasuan ekonomiak— betetzen dituen funtzio sozialak azalarazteko.

Shapinek (1980) ohartarazi du zenbait talde sozialek beren interesen mesedetan egiten duten zientziaren erabilera. Ekonomiari dagokionez, argi azaltzen du Ha-

Joon Chang Cambridgeko ekonomialariak hauxe dioenean: «Daukagun ordena soziala justifikatzeko ideologia bihurtu da ekonomia» (Chang, 2016). Hala ere, hori guztia ulertzeko, asko lagunduko digu liberalismo ekonomikoaren eta ikurra duen *esku ikusezinaren* historian barna bidaiatzeak. Horretaz dihardu eskutan duzun liburuak.

### 1.3. ESKU IKUSEZINA JAIKO ZENETAKO

Gure bidaiaren lehen mugarrira Adam Smithen lanetan topatuko dugu, haren testuetan eta garaiko testuinguruan. Hortaz arituko gara Smith liberalismoaren aita fundatzailearen atalean, luze eta zabal, gainera. Hala ere, sarrera honetan, aurrerapen bat egitea merezi du.

Adam Smithen 1776an argitaratutako *An Inquiry into the Nature and Causes of the Wealth of Nations* (Smith, 2007) liburu famatuaren azterketa xehea egin asmo dugu. Bereziki, bere IV liburukia da aztertuko duguna. Bertan topatuko ditugu liberalismo ekonomikoarentzat ikurra izan den *esku ikusezinaren* metafora, edota helburu bera duten beste kontzeptu eta planteamendu ugari. Era berean, merkatu librearen apologia egiteaz gain, kontuan hartuko ditugu estatuaren esku hartzeari buruzko Smithen zenbait iritzi eta aipamen kritiko.

Badira akademian, *esku ikusezinaren* planteamenduetatik haratago, Smithen idazlanetan bestelako jarrera ikusi nahi dutenak. Estatuaren gutxieneko zereginak zerrendatzen zituen neurrian, batzuk ez datoz bat Smith liberalismo ekonomikoaren aita fundatzaile izendatzearekin. Guk ez dugu bat egiten halako iritziekin eta Smithen lana liberalismo ekonomikoaren diskurtsoa eraikitzeke ezinbesteko zutabetzat jotzen dugu.

Norabide horretan, eta ikerketa honen aurrerapen gisa, esan daiteke haren erretorika eta erabilitako hitzak adierazgarriak direla, oso, gure ariketa ulertzeko. Smithentzat gobernuen legeak, gehienetan, *odoltsuak* dira, zergak ere *jasanezinak* edo *arduragabeak* dira eta, oro har, gobernuaren esku-hartzea *nekagarria*, *akigarria* eta *negatiboa* da. Gainera, Smithen ustetan, norberekieria zilegi ez ezik, ekonomiaren garapenerako pizgarri eraginkorra ere bada. Zer gehiago behar dugu Adam Smith liberalismoaren aldarera igotzeko?

Luze eta zabal arituko gara erabiltzen dituen metaforen eta erretorikaren inguruan, baita horien bitartez ezarri nahi den marko eta ikusmoldeaz ere. Agian, batzuek halako metaforei (*odoltsuak*, *akigarria*...) ez diete bestelako ondoriorik aterako, baina diskurtso ekonomikoaren erretorika sakonki aztertu duen McCloskey (1983) ekonomialariak dioen bezala, halako kontzeptu eta metaforak ez dira, inondik ere, diskurtsoaren apaingarri hutsak. Bestalde, ez dago soberan gogora ekartzea Adam Smith erretorikako irakaslea izan zela. Noski, erretorikaz dakienak hitz gutxi erabiliko ditu alperrik.

Hitzen azterketatik haratago, ordea, bestelako begirada garatu nahi da ere eta, ondorioz, Adam Smithen lanari dagokionez, bi esparrutan izan zuen eraginaz hausnarketa egitea garrantzitsua izango da.

Batetik, haren obra ideien historiaren garapenean kokatuko dugu. Erdi aroa amaitu eta lege jainkotiarrek gaudituta, giza legeen garaia abiatu zen. Lehen urratsak politikaren alorrean eman ziren: eskubideak, kontratu soziala eta legeen balio bera ere. Urrats logiko gisa, Smithen ekarpena iritsi zitzaigun, gizartearen ezaguera ekonomikoa eta harreman sozialetarako dimentsio berria proposatuz. Hori gutxi balitz, norberaren interesaren alde aritzea jarrera zilegi eta eraginkor gisa kokatu zuen, norberekeriari zentzu positiboa eskainiz. Beraz, ez da makala ideien historiaren alorrean Smithen eginiko urratsa.

Edonola ere, ideien munduan ez ezik, gizartean ere eragin zuen Smithen lanak, eta nola gainera! Esan bezala, lan honetan testua bezain garrantzitsua izango da testuingurua, eta, ondorioz, aztertuko da haren ekarpenaren eragina une horretan hedatzen ari zen burgesiarentzat eta bere interes ekonomiko eta sozialentzat.

#### **1.4. ESKU IKUSEZINA HIL ETA BERPIZTU ZENEKOA**

Smithen *Nazioen aberastasuna* liburua berehala barreiatu zen Europa eta munduan zehar. Era berean, *esku ikusezinak* berehala ekin zion batzuen eta besteen helburuak kudeatzeari, eskariak eta eskaintzak, nahiak eta ezinak ahal zuen neurrian orekatzeari.

XIX. mendean, merkatu librearen eta sistema kapitalistaren hedapen zabala eta azkarra gertatu zen. Nonbait, Smithen goraipatutako merkatu librearen ekonomiak eta estatuaren esku-hartzerik ezak fruituak ematen zituzten, eta, aberastasuna deritzoguna, barra-barra sortu zen. Bestelakoa da haren banaketa. *Esku ikusezinak* eskaria eta eskaintza orekatzen zituen, inondik ere ez gizartea.

Milaka eta milaka pertsonak landaguneak utzi, eta lan bila hiriburuetara jo zuten. Hamabi orduko lanaldia amaitu eta lantegien parean eraikitako auzo nardagarrietan bizitzera kondenatuta zeuden. Ikusezina den eskua ikusten ez dugun bezala, hark ere ez omen zuen ikusten pobrezia, hots, lan- eta bizi-baldintza lazarriek eragindako txirotasuna. Langileek bai, ordea, eta azkar hasi ziren egoerari aurre egiten, aldarrikapenak zehatzuz eta horren aldeko hainbat borroka martxan jarritz.

Testuinguru horretakoak dira Marxen idazlanak. Errealitate gordin horren salaketa horretatik abiatu eta merkatu-ekonomiak eta sistema kapitalistak zituzten gabeziak luze eta zabal aztertu zituen, baita bestelako gizarte-eredua planteatu ere (sozialismoa eta komunismoa). Hala, langileen borrokaren harira sindikatuak jaio ziren, eta, era berean, sozialismoaren defentsan alderdi politikoak ere sortu ziren. Horren guztiaren ondorioz, hainbat gobernuk nolabaiteko esku-hartzeari ekin zioten: lanorduen arautzea, lehen seguru sozialak, etab.

Dena den, esku-hartze oso mugatua zen eta, ondorioz, *esku ikusezinak* aukera guztiak zabal-zabalik izan zituen bere egin beharra betetzeko, ekonomiaren garapena bultzatzeko eta aberastasuna sortzen jarraitzeko. Merkatu-ekonomia hedatzen zihoan, eta liberalismo ekonomikoa eta *esku ikusezina*, ezbairik gabe, nagusiak ziren ekonomia zein politikaren alorretan.

Alabaina, berehala azaleratu ziren *esku ikusezinaren* ezintasunak eta merkatu-ekonomian sortzen diren atzeraldi eta depresio ekonomiko handiak agertzen hasi ziren. Lehen beheraldi larria, 1873an jazo zen, Lehman Brotherseko erorketaren antzera, AEBko finantza-entitate garrantzitsu bat erori eta Europako burtsetara jauzi egin zuenean. Bigarrena, are ezagunagoa da, 1929ko New Yorkeko «astearte beltzean» burtsa erori eta mundu osoko ekonomia atzeraldian sartu zen.

Mihi gaiztoek diote *esku ikusezina* New Yorkeko burtsaren zakarrontziren batean gelditu zela ezkutatuta; izan ere, hurrengo urte luzeetan ez zuen arrakasta handiegirik izan. Merkatu-ekonomiaren gabeziak azalarazi eta gero, keynesianismoa zabaldu zen akademian, eta *New Deal* delakoaren filosofia gobernu gehienen politika ekonomikoen ardatz bihurtu zen. Finean, ikusten ez zen eskuan baino, estatu eta gobernuen esku-hartzean oinarritu zen paradigma berria, eta merkatu librea auzitan jarri gabe, gobernuak ekonomia arautzeaz gain, beren gastu-politikarekin eragiteko konpromiso sendoa hartu zuten.

Aipatutakoari, Sobietar Iraultza gehitu behar zaio, zeinean estatua planifikatzaile bakar gisa aritzen zen eta herritarrei biziraupenerako oinarritzko baliabideak eman eta hainbat eskubide ere bermatzen zizkien. Alde batetik, erreferentzia berri horren eraginak, eta, bestetik, herrialde askotan aurrera eramandako borrokek eta aldarrikapenek urrats berri eta garrantzitsua ematea ahalbidetu zuten: ongizatearen estatuaren sorrera.

Aurreko guztia gutxi balitz, Bigarren Mundu Gerra eta haren ondorioak ere kontuan hartu behar dira. Herrialde gehienetan, gerra-ekonomia nagusitu zen, eta, ondorioz, gobernuen erabateko parte-hartzea ohiko eta arrunt bihurtu zen.

Beraz, 1929ko beheraldi ekonomikoaren eta Bigarren Mundu Gerraren hondamendiaren azpian ezkutatu zen gure *esku ikusezina*. Keynesen planteamenduak azkar hedatu ziren zientzia ekonomikoaren esparruan, eta liberalismo ekonomikoaren oinarriek, kasik, desagertu arteko atzerapausoa eman zuten. Maila zientifikoan ez ezik, eta AEBk sustatutako Marshall planaren eraginez, Europako herrialde gehienen gobernuak esku-hartze sendo baten aldeko hautua egin zuten. Oraingoan bai, tarte luze batez, Smithen esku famatua ikusezin bilakatu zen.

Haatik, ez zen luzarorako izan. Liberalismo ekonomikoaren paradigmarentzat hain zaila zen testuinguru horren barruan, 1947. urtean, Friedrich Von Hayekek hogeita hamasei intelektual gonbidatu zituen Suitzako Leman lakuari begira dagoen Mont Pelerinera. Bertan sortu zuten izen bereko elkarte eta haren sortze-agiriak

zioenez, arriskuan ikusten zituzten gizabanakoaren askatasuna eta zibilizazioaren balioak. Horiek defendatu eta, era berean, merkatu librearen zein propietate pribatuaren defentsa sutsua egiteko konpromisoa hartu zuten. Berriz, gure *esku ikusezinak* hatz luzea altxatu zuen, gehiago esateko zuen seinale. Berriz, gure esku famatuak bere lekua aldarrikatu zuen, akademian eta gizartean.

Horrela iritsiko gara liberalismo ekonomikoaren diskurtsoan barna egitera goazen bidaiaren bigarren mugarrira. Von Hayekek sustatutako bideari Milton Friedman gehitu zitzaion, eta, urte gutxi batzuk geroago, biek Nobel saria jaso zuten. Azken hamarkadetan hedapen zabala, hegemonikoa esan genezake, izan duen neoliberalismoaren erreferentzia nagusiak bilakatu dira, liberalismo ekonomikoaren apostolu berriak.

Adam Smithen testuekin egingo dugun bezala, horien idazlanak ere, xehe-xehe, aztertuko ditugu. Lan ezberdinak landuko baditugu ere, horietako biren izenburuak aurreratuko ditugu hitzaurre honetan: Von Hayeken *The road to serfdom* (Hayek, 1944) liburua eta Milton Friedmanen *Free to Choose: A personal Statement* (Friedman, 1980). Ez da erretorikaz asko jakin behar antzemateko titulu horiekin autoreek bilatzen zuten azken helburua. Hala ere, ez da tituluetan soilik gelditzeko unea, garatutako diskurtsoa eta horren funtzio eta ondorioak aztertzen saiatuko gara.

Bestalde, garrantzitsua da jakitea Hayekek eta Friedmanek lan akademiko mardula garatzeaz gain, konpromiso handia hartu zutela liberalismoaren apostolu gisa predikatzaileritzeko. Ez zitzaion, noski, horretarako babes falta izan. Horren adibide dira General Motorsek aurreratu dugun *Morrontzaren bidea* liburuaren edizio irudiztatua argitaratu izana, edota Milton Friedmanek, Rose bere lankide eta emaztearekin batera, aipatu *Libre erabakitze*ko liburua telebista-saio bihurtu eta aste luzez zuzendu izana.

Zinez, lan akademikoa egiteaz gain, politika neoliberalen hedapena zuten helburu. Halaber, gobernu ezberdinen aholkulari jardun ziren eta Friedmanek Pinocheten gobernuarekin izaniko harremanak zeresan handia eman zuen. Sakondu beharreko gaia izango dugu hori ere.

### **1.5. ESKU IKUSEZINAREN MIRARITIK, ZIRUJAUAREN ESKUAREN ALDARRIKAPENERA**

Adam Smithen jarraitzaile izatetik, Von Hayek eta Friedman jarraitzaile ugari izatera igaro ziren. Friedmanen ikasleak, *Chicago boys* deiturikoak, Txilen eta Argentinan zuzenean aritu baziren ere, beste jarraitzaile ugari neoliberalismoaren bandera mundu osora barreiatu zuten.

*Think tank* direlakoan lana kontuan hartu gabe, nekez uler daiteke *esku ikusezinaren* berpizkundea. Edonola ere, ekonomia neoliberalaren aldeko hautua garaile atera zen, akademian zein gizartean. 1973ko petrolioaren krisia bera

keynesianismoaren amaiera gisa azaldu zen eta Berlingo harresiaren erorketaren euforiapean, Francis Fukuyamak «The end of History» (Fukuyama, 1989) iragarri zuen. Aurrerantzean demokrazia formala eta merkatu librea izango ziren eredu politiko eta ekonomiko bakarrak, betirako gainera. Ezaguna eta oso zabaldua da Fukuyamaren planteamendua, ez hainbeste, ordea, haren ikerketa-proiektuak nork finantzatu zituen. Hori ere, argitu beharreko gaia izango da.

Urte hauetan guztietan, politika neoliberalak hedatzen eta zabaltzen hasi ziren. Laurogeiko hamarkadan, Reagan eta Thatcher izan ziren liberalismo ekonomiko sutsuaren erreferente politiko argienak, eta 1993. urtean, Maastrichteko itunaren sinadurarekin, Europa osoak bedeinkatu zuen Hayeken eta Friedmanen lana. Berriz ere, *esku ikusezina* jaun eta jabe bilakatu zen gizartearen txoko guztietan.

Aitzitik, aurrekoetan bezala, merkatuak bere kabuz arautzeko dituen ezintasunak, krisiak deiturikoak, azkar azaleratu ziren. Teknologien burbuilak eztanda egin eta gero, krisi bortitz batek laurogeita hamarrekko hamarkadaren lehen zati osoa baldintzatu zuen. Liberalismoak, alabaina, ekonomia atzeraldira eramaten duten neurri eta politika berberak planteatzen ditu atzeralditik ateratzeko. Ondorioz, hamarkada berean burutu zen mundu mailako globalizazio teknologikoaren prozesu erraldoia baliatuz, ekonomiaren eta, bereziki, finantza-merkatuen desarautze-prozesuari ekin zitzaion. Aldi berean, herrialdeka, pribatizazio-politika bortitzak bultzatzen hasi ziren. *Esku ikusezina* eragindako suari enbor bereko ezpal gehiago bota zitzaizkion.

Gauzak horrela, ekonomiaren eztanda denbora kontua zen, eta, lehen aipatutako 2008ko irailaren 15ean, Lehman Brothers erori zen. Ez da ekonomialaria fina izan behar merkatu-ekonomiak krisiak sortzen dituela ikusteko. Ez da asko ikasi edo irakurri behar liberalismo ekonomikoak arrisku handiak sortzen dituela jakiteko. Eta, hala ere, bestelako markoa ezarri nahi dute gutariko bakoitzaren burmuinean, merkatu-ekonomia auzitan jar ez dezagun eta gobernuen esku-hartzea, beti, merkatuaren zerbitzura izan behar duela zalantzarik gabe onar dezagun.

Blumenberg-ek (2003) zioen metafora absolutuak gauzak erraz azaltzeko erabiltzen diren marko kontzeptualak direla, hau da, konplexua dena erraz ulertu eta barneratzeko. Orobat, Lakoffek (2004) dioskun bezala, metafora horiek —*esku ikusezina*, adibidez— mundua behatzeko modua eskaintzen digute. Begirada horretatik aztertuko dugu mundua, eta, gure kasuan, ekonomia. Beraz, ulermena errazteaz batera, erabilitako metaforek ikuspegi zehatza ere eskaintzen edota inposatzen dute.

Bederatzi urte igaro dira krisia hasi zenetik gaur arte, langabezia, prekarietatea eta pobrezia iraunkor bihurtzen ari dira Europako herrialde askotan, eta, lan-munduan, baldintza eta egoera ezegonkorak hedatzen ari dira langile pobreen figura edo egoera sorraraziz, bereziki emakumeen artean. Bitartean, enpresa handien etekin ekonomikoek gora egin dute nabarmen, eta aberatsen eta pobreen arteko arrakala izugarri hazi da.



Politika liberalak, pribatizazioak kasu, negozio ederra dira gutxi batzuentzat, eta bankuen *erreskatearekin* egin dena, noski, are handiagoa. Liberalismo ekonomikoak, bere horretan, etekin ekonomiko apartak ditu gutxi batzuentzat, baina, noski, gehiengoaren bizi- eta lan-baldintzen kaltetan. Horregatik guztiagatik krisiaren kontakizunak garrantzi handia hartzen du.

Horrela iritsiko gara gure bidaiaren azken mugarrira, krisiaren diskurtsoaren azterketara. Lehen aipatu bezala, Emmánuel Lizcanok (2012) krisiaren kontakizunean erabilitako metaforen lanetik abiatuko gara, egunerokoan eragile edo erakunde ezberdinek egin dituzten adierazpenei eta agiriei erreparatuz eta gure azterketa propioa ere eginez.

Hona hemen, adibide gisa, egunkari batean topatutako Luis de Guindosen adierazpenak, garaian Ekonomia eta Lehiakortasunerako Espainiako Ministroa eta egun Europako Banku Zentralaren lehendakariordea:

*Gaixoa zaintza berezietako unitatetik atera da (...) jada gelan dago (...) lagunduriko arnasketa ez da beharrezkoa, gaixoa hobeto dagoelako, sendatzen ari da (...)*<sup>1</sup> (De Guindos, 2014).

Halako esaldia metaforaz josia dago, baina marko bakarra ezartzea du helburu: egoera ekonomikoa gaixo dagoen pertsonarekin alderatzea eta, ondorioz, laguntza oro justifikatzea. Beraz, lehen aipatutako ezbehar naturalari, tsunamia dela edo lurrikara dela, orain medikuntzari lotutako markoa gehituko zaio. Biek ala biek liberalismo ekonomikoaren ardura zuritzea dute helburu, *esku ikusezinaren* gabeziak ezkutatzea, ez azalaraztea. Adierazpen hori adibide xumea den neurrian, egungo diskurtso ekonomiko ofizialaren azterketa sakonagoa ezinbestekoa da, aipatu ondorioak berreste aldera. Horretara lotuko gara azken krisiaren nondik norakoak aztertuko diren atalean.

## **1.6. ESKU IKUSEZINAREN INTERES EZKUTUAK**

Oso era laburrean azaldu dugun liberalismo ekonomikoaren historiak diosku merkatu-ekonomiak krisiak eta atzeraldiak eragiten dituela bere horretan. *Esku ikusezinak* ez du gaitasunik merkatu librearen orekatzeko, eta, goiz ala berandu, estatuaren esku-hartze zuzena eskatzen du. Berez, esan genezake merkatu-ekonomiak estatuaren beharra izan duela betidanik eta etengabe, baina liberalismo ekonomikoaren defendatzaileek fikzioa lehenesten dute. Azalduko den bezala, historian zehar, utopia liberalaz mintzatu dira aditu asko.

Ricouer-en ustez, *Lectures on Ideology and Utopia* (Ricoeur, 1986), ideologiaren helburua hau da: menderatzaileek nahi dutenaren eta menderatuek pentsatzen dutenaren artean dagoen arrakala betetzea. Bien artean dagoen tarte hori bete ezean,

---

1. «El enfermo ha salido de la UVI (...), y ya está en planta (...) la respericiación asistida no se necesita porque el enfermo está mejor, se está curando» jatorrizkoan.

*statu quo*a ez dago bermatzerik. Lan honen bitartez frogatu nahi da diskurtsoaren eta erabilitako erretorika eta metaforen funtzioa zulo hori ere ondo betetzean datzala.

Merkatu librearen sistemak ez du inoiz funtzionatu. Utopia liberala, aipatu bezala, eztabaidatua izan den planteamendua ere bada. Smithen lehen idazlanetatik hona, batzuetan gehiago besteetan gutxiago, gobernu edo estatuaren esku-hartzea beti aldarrikatu da. Aitzitik, esku-hartze hori ez da izan bestelako eredu sozial edo ekonomiko berria eraikitzeko, edo herritarron gehiengoaren mesedetan jartzeko, interes ekonomiko zehatz batzuk defendatzeko baizik.

Horregatik, diskurtso ekonomikoaren historian zehar egingo dugun bidaia honetan, mezua aztertzea bezain garrantzitsua izan daiteke mezuaren igorlea bera ere aztertzea. Agidanez, merkatu-ekonomia eta haren interesen aldeko estatuaren esku-hartzea defendatzen duten sektore horiek oso interesaturik egongo dira ideologia eta erretorika zehatza hedatzeko. Lehen aipatu den mendekotasunaren arrakala nekez bete daiteke, modu zabalean, hiritarregana mezua iristea bermatzen duen igorlerik gabe.

Horregatik *esku ikusezinaren* ideologiaren hedapenerako tresnak diren *think tank* eta komunikabideen erabilerari ere tarte bat eskainiko zaio, baita horien atzean dauden harreman eta interes ekonomikoei ere. Era berean, ekonomialariek bai *think tank*etan eta bai komunikabideetan duten funtzioari erreparatuko diogu, jakina baita mezuaren igorlea nor den eta haren kategorizazioak garrantzi handia dutela mezuaren zabalkunderako.

Beraz, zientzia ekonomikoaren paradigma nagusiaren diskurtsoa aztertzeraz goaz, *esku ikusezinaren* bizitzan barna murgilduko den bidaia interesgarria osatzeraz. Lehenik, bidaiaren lehen mugari gisa, oinarrietara joko dugu —Adam Smithen testuetara eta testuingurura—. Bigarrenik, *esku ikusezinaren* teoriak izango duen gainbehera eta gero, Von Hayeken eta Friedmanen eskutik nola berpiztuko den aztertuko dugu —neoliberalismoaren sorrerara—. Eta, azkenik, egungo krisiaren testuinguruan, aditu ekonomiko gehienek erabili duten diskurtsoa eta markoa aztertuko ditugu. Diskurtso liberalaren hasierako oinarrietatik egungo egokitzapenetarainoko ikerketa garatzera goaz, baina betiere, gizartean sortzen diren harreman sozial, politiko eta ekonomikoekin uztartuz eta diskurtso horren ondorioak azalaraziz. Bagoaz.

## **1.7. BIBLIOGRAFIAREN GAINEKO OHARRA**

Lan hau egin ahal izateko bibliografia ugari erabili behar izan dut eta bibliografiak bi zeregin nagusi izan ditu. Batetik, ekarpen teoriko ugari jaso ditut ekonomiaren, soziologiaren eta diskurtsoaren azterketa kritikoaren inguruan. Bestetik, testuen azterketa bera ere egiteko garrantzitsua izan den neurrian, aztertuko diren autoreen bibliografia ezinbesteko erreferentzia izan da.